

ENPLEGUAREN ERAKUSLEHIOA



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi

AURKIBIDEA

1. Gazteen egoeraren azterketa orokorra

04

- a. Jarduera tasa
- b. Langabezia-tasa
- c. Bataz besteko soldata
- d. Egokitutako enplegua
- e. Ekintzailetzarako gogoak + ekintzaileak
- f. Emantzipazioa: Emantzipazio adina, tasa eta gain hartu daitekeen gastua eta hartzen den gastuaren arteko aldea

2. Errenta aitortpenaren nondik norakoak

07

- a. Noiz egin behar da?
- b. Nola egin behar da?
- c. Berrikuntzak

3. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta - Renta de Garantia de Ingresos

08

- a. Zer da?
- b. Nola eskatzen da?
- c. Betebeharrak
- d. Berrikuntzak
- e. Ohiko galderak

4. Emantzipazioa, zer egin behar dut etxetik joateko?

11

- a. Gaztelagun
- b. Emantzipa

5. Enplegu eta Ekintzailetza Baliabideak Gasteizen

14

- a. Enplegu bilaketa eta prestakuntza programa
- b. Ekintzailetzarako laguntzak eta baliabideak
- c. Informazio gehiago

6. Ohiko galderak

16

SARRERA:

Enplegu arloan gertatzen ari diren aldaketak askotarikoak dira, non prekaritatea zein langile pobreen kontzeptuak pil-pilean dauden, indar asko hartzen ari diren lan formula kaxkar berrien ondorioz. Are gehiago gazteriaren kasuan.

Egoera honi buelta emateko ezinbestekoa ikusten du EGK-k gazteriak lan munduaren nondik norakoak, legeak, eskubide eta betebeharrak ezagutzea, eta hauek aldarrikatzea beharrezkoa denean nola egin daitekeen jakitea ere. Pertsonen bizitzak produktibitatearen aurretik jartzeko eta kalitatezko enpleguaren alde egiteko. Horretarako gida bat aurkeztea beharrezkoa ikusten da. Bertan, enpleguaren inguruan izango diren galdera zein kezka barne bilduko dira, besteak beste, errenta aitortpenaren nondik norakoak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan eta beste hainbat ohiko galderei erantzuna emango dio gidak.

2008ko krisiaz geroztik, hainbat krisi sostengatu behar izan dituzte bizkarretan. Lan merkatuaren egoerak eta bizitzaren garestitzeak ez dute batere erraza jartzen gazteen autonomia eta emantzipazioa aurrera eramatea. Hau horrela izanik, urte guztian zehar hainbat ekintza burutu dira eta horien isla izango da enpleguaren erakuslehioa deitu diogun gida hau.

Gida honek beraz 6 atal izango ditu eta guztiek gazteek enpleguarekiko eta honekiko duten kezkei erantzuna ematen saiatuko da. Lehenik eta behin datu orokorren bitartez gazteen egoeraren analisi bat egingo da, ondoren errenta aitortpenaren inguruan hitz egingo da eta honek dituen ñabardura guztien analisisa burutuko da. Honi jarraiki, gaur egun jasan dituen aldaketak direla medio DSBE (gazteleraz Renta de Garantía de Ingresos) dena zer den eta nola eskatzen den ikusiko da. Emantzipazioaren gaia ere ezinbestekoa izango da aztertzea, bai dauden errekurtsioei erreparatuz eta baita gazteengandik jasotzen diren kezka zein galderak erantzunez, eta azkenik Gasteizek enplegua bilatzeko orientabideak emateko planari ere erreparatuko da honek duen garrantzia azpimarratuz. Azken zati bat utziko da gazteek Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari egin dizkieten galdera ohikoei erantzuna emateko.




1. GAZTEEN EGOERAREN AZTERKETA OROKORRA

Jarduera tasa

ZER DA?


Lanean ari diren edo lanerako prest dauden pertsonen ehunekoa, hau da, landunak eta enplegu-bilaketa aktiboan jarduten duten langabetuak kontuan hartuta.



Langabezia-tasa

ZER DA?

Enplegurik ez duten baina lana aktiboki bilatzen ari diren pertsona aktiboan, hau da, lan egiteko moduan egonik, azken lau asteetan lana bilatzeko gestioaren bat egiten duten pertsonen ehunekoa adierazten du langabezia-tasak. Horretarako interesgarria izan liteke azken urteetan langabeziak izan duen bilakaera, izan ere, bilakaera hau positiboki nabarmendu daiteke.




2020tik 2023ra bitartean, langabezia-tasak %22tik %12,6ra egin du behera. Gizonen eta emakumeen langabezia-tasak jaitsi egin dira (%23,6tik %13ra eta %20,5etik %12ra, hurrenez hurren).

Bataz besteko soldata

ZER DA?

Pertsona batek lan bat egitearen truke jasotzen duen ordainsari ekonomikoa adierazten du, normalean diru kopuru moduan. Honek langilearen lana eta esfortzua konpentsatzen ditu, eta bereziki ohikoa da lan-kontratu formal baten baitan. Soldatak hainbat faktoreren arabera alda daitezke, hala nola, lanaren izaera, esperientzia, prestakuntza, industria, lanaldi mota eta enplegu-eremu geografikoa.




EAEn lan egiten zuten 18 eta 29 urte bitarteko gazteen hileko batez besteko soldata 1.226€k zen, lanaldi osoari dagokionez. 18-34 urte bitarteko hileko batez besteko soldatari erreparatuaz emakumezkoek (1.299€) gizonezkoek (1.498€) baino 199 € gutxiago kobratzen zutelarik hilean. Lan berdina burutzeagatik emakumezkoek gizonezkoek baino %25 gutxiago kobratzen dute.

Egokitutako enplegua

ZER DA?

“Enplegu egokitua” edo “empleo encajado” esapideak adierazten du lanpostu bat pertsona baten gaitasunetara, beharrianetara edo egoerara egokituta dagoela. Hau izan daiteke lanpostua pertsona baten esperientzia, trebetasun edo osasun egoerara moldatua izatea, edo lanaren baldintzak, esaterako ordutegia edo lan egiteko modua, langileari egokitzen zaizkion moduan antolatzea.




Honi dagokionez, azken urteetan kopuru honek goranzko joera izan duen arren, azken 3 urtetan ez du ia aldaketarik izan. Hala ere, kopurua altua dela esan beharra dago.

Ekintzailatzarako gogoia + Ekintzaileak

ZER DA?

Ekintzailatza, pertsona batek bere negozioa edo jarduera ekonomikoa sortzea eta kudeatzea da, beste norbaiten kontura lan egin beharrean. Hau da, norberak bere kabuz egiten du lan, bere enpresa propioa sortuz edo autonomo gisa jardunez. Ekintzailatza izaera ekintzailea duten pertsonen lotuta dago, hauek negozio-aukerak identifikatu, erabakiak hartu eta arriskuak kudeatzen dituztelarik, ideia berritzaileak garatzeko eta merkatuan txertatzeko. Autoenpleguak askatasun handiagoa ematen du lanari dagokionez, baina arrisku eta erantzukizun handiagoa ere ekartzen du.



Gazteen artean autoenplegurako gogoia dagoen arren bere kontura lan egiten duten gazteen kopurua txikiagoa da eta alde horrek egon daitezkeen zailtasunak aztertzea bultzatzen digu.

Emantzipazioa:
Emantzipazio adina, tasa
eta gain hartu daitekeen
gastua eta hartzen den
gastuaren arteko aldea

ZER DA?


Emantzipazioa pertsona batek, normalean gazte batek, bere familia-etxetik irten eta bere kabuz bizitzea erabakitzen duen prozesua da. Emantzipazioak independentzia pertsonala eta ekonomikoa eskatzen ditu, non norberak bere behar eta erantzukizunak (etxebizitza, gastuak, elikadura) kudeatzen dituen. Emantzipazio-tasa gazte edo pertsona talde batek bere familia-etxea uzten duen maiztasuna edo ehunekoa adierazten duen estatistika da, eta faktore ekonomikoek, kulturak edo gizarte-baldintzek eragin dezakete. Tasak herrialde, eskualde edo garaien arabera aldatzen dira, eta etxebizitza-merkatuaren prezioek, soldata-mailak eta bizi-baldintzek baldintzatu dezakete.

**Emantzipatzeko gain
hartzen den gastua**

ZER DA?


Emantzipatzeko gain hartzen den gastua gazte batek etxebizitza ordaintzeko benetan egiten duen gastua da, eta honako hauek barne hartzen ditu: Alokairua, Etxea erosteko gastuak, hala nola hipoteka-kuotak, interesak eta erosketa kostu osagarriak eta zerbitzuen gastuak, besteak beste, argindarra, ura, gasa, mantentze-gastuak eta bestelako oinarrizko gastuak.

**Emantzipatu-
tako gazteak
18-24 urte**



%4,5


**Emantzipatu-
tako gazteak
25-29 urte**




%35,7

Gaur egungo gazteek bi krisi pairatu dituzte 30 urtetik beherako euren bizitzetan: horrek eragin zuzena du, noski, euren emantzipazioan. Gazteen Euskal behatokiaren azken datuen arabera, batez besteko emantzipazio adina 29,8 urtekoa da. 18 eta 24 urte artekoen %4,5 besterik ez dago emantzipatuta, eta 25 eta 29 urte artekoen artean, %35,7: hirutik bat besterik ez.

**Ordainketa
hipoteka**



**Ordainketa
alokairua**



Pertsona gazte batek bere hileko diru-sarreraren %56,9 bideratu behar du hipoteka-kuotaren ordainketa-
ra, edo %51.9 alokairuaren errentaren ordainketa-
(Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera): hau,
banku-erakundeek gomenadatutako gehieneko ehu-
nekoaren (%30) ia bikoitza da.

2. ERRENTA AITORPENAREN NONDIK NORAKOAK

Noiz egin behar da errenta aitorpena?

Aurreko urtean (2023) 22.000€tik gorako sarrerak izan badituzu edo 14.000€-tik gorako/gorakoak diren bi ordaintzaile edo gehiago eduki badituzu. Azken kasu honetan bigarren ordaintzailetik urtean 1.600-2.000€ errenta jaso ezkerro. Bizkaiaren eta Arabaren kasuan: 2.000€ Gipuzkoaren kasuan: 1.600€.

Eta hobeto ulertzeko... hemen adibide bana!


- Garazik 23.000 €-ko errenta gordina jasotzen du urtean = **Errenta aitorpena egin behar du.**
- Garazik 15.000€-ko errenta gordina jasotzen du eta bi ordaintzaile dauzka. Bigarren ordaintzailetik urtean 1700€ jasotzen ditu = **Errenta aitorpena egin behar du.**
- Garazik 15.000€-ko errenta gordina jasotzen du etbi ordaintzaile dauzka. Bigarren ordaintzailetik 200€ jasotzen ditu urtean = **Ez du errenta aitorpena egin behar.**

Nola egin errenta?

Foru Aldundiek beharrezko informazioa arakatu eta errenta aitorpen proposamena aurkezten dizute. Hau onartu, moldatu edo ukatu egin beharko duzu.

Berrikuntzak!

Hemendik aurrera, 2025ean hasita, langabezi egoeran dauden edo egon diren herritar guztiek errenta aitorpena aurkeztu beharko dute, hau da, 2024 urteari dagokion errenta aitorpena. Horrela, zerga-sistema orekatu eta bidezkoagoa bermatzea bilatzen da, herritar guztiek jasotako diru-sarrera guztien arabera beren ekarpena egin dezaten.



*** Baliteke informazio berria aurkeztu behar izatea zure egoera errealerara egokitzeke (alokai-ruaren edo hipotekaren kontratua, errolda...). Enpresak 10T ziurtagiria eman behar dizu(te) zure 2023ko lan-etekinak aurkezteko.**

3. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

1. Zer da Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta? DSBE - RGI

Oinarrizko beharretarako baliabide ekonomiko nahikorik ez duten eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzt en pertsonen zuzendutako errenta.

2. Nola eskatzen da? Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- a. Eskaera-orria (DBE eskatzeko, berritzeko edo berrikusteko (gogoratu martxoaren 29tik aurrera DBE ez dela berriztu beharko).
- b. Errolda agiria (hau udaletxean eskatu behar da).
- c. Prestazioa helbideratzeko dokumentua (ze kontu korrontetan nahi duzun dirua jasotzea).
- d. Egoera zibilaren, diru-sarreraren eta ondarearen inguruko erantzukizunpeko adierazpena.
- e. Etxebizitzaren alokairu kontratua.
- f. Logela baten alokairu kontratua.
- Aurkeztu beharreko dokumentazio guztia euskadi.eus webguneko Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta ataleko derrigorrezko dokumentazioaren puntuan.

3. Betebeharrak

- a. Bizikidetzaren unitate bat izatea.
- b. 3 urte Euskadin erroldatuta edo urtebeteko errolda izatea baldin eta:
 - Indarkeria matxistaren eta etxeko indarkeriaren, salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimenez.
 - Errefuxiatuentzat.
- c. 23 urte baino gehiago edo 18 urte baino gehiago baldin eta bizitza independentearen egiaztatzea, eskaera egin baino urtebete lehenagotik.
- d. Borondatezko lanaldi murriztua, eszedentzia eta bestelakorik ez hartzea.
- e. Lanbiden izena emanda egotea enplegu-eskatzaille gisa eta lanbidek agintzen dituen prestakuntza ekimenetan parte hartu behar izatea.
- f. DBE eskatu aurretik, bestelako pentsio eta prestazio publiko guztiak eskatu behar izatea.



4. Berrikuntzak ➤ Azaroaren 21eko 173/2023 dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2024ko urtarrilaren 1ean indarrean jarrita)

a. Zenbateko

- I. Errenta 727,41€-tik 800,13 €-ra igo da.
- II. Adingabeak dituzten familia ugarien kasuan 1086,15 €-tik 1680,27 €-ra igo da.

b. Adina

- I. RGI jasotzeko batez besteko adina 23 urtetik 18 urtera pasatuko da, eskatzaileak emantzipatuta eta lanbiden erregistratuta egon beharko du gutxienez laguntza eskatu baino urtebete lehenagotik.

c. Errolda

- I. Urtebetera murrizten da errolda:
 - Adingabeentzat.
 - Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzat.
 - Indarkeriaren jasaten duten emakume biktimentzat.
 - Trata eta esplotazio sexualaren biktimentzat.
 - Errefuxiatuentzat.

d. Eguneraketa eta laguntza jasotzeko epeak

- I. Errenta epe mugagabea aitortuko da. Eskatu eta hurrengo hilabetea jasoko da, eta hiru hilabete behin berrikusiko da.

e. Lanbidearen bete beharrak

- I. Integrazio programa pertsonalizatu bat ezartzen du. Onuradunei gutxienez enplegu eskaintza bat edo formazio jarduera bat eskaintzea derrigorrezko du.

5. Ohiko galderak

a. Zer gertatzen da bi zepen artean lanean hasten banaiz edo lan egiteari uzten badiot?

- Lanean hasi eta amaitu duzun tartean jasotako diru sarrerak zenbatuko zaizkizu eta horrek DBEko zenbatekoan eragingo du.

b. Zer arrazoi daude dberen ordainketa bertan behera uzteko?

Prestazioa jasotzeko eskubidea osorik etengo da honako kasu hauetan:

- Behar ekonomikoko egoeran ez egotea.
- Kideren batek ez baditu eskatu izan ditzaketen pentsio eta prestazio publiko guztiak.
- DSBEaren zenbatekoa ezin denean zehaztu.

Titularrari edo onuradunari dagokion banakako osagarria eten egingo da

- titularra edo onuraduna EAEtik kanpo egon bada 30 egun baino gehiagoz eta 90 egun baino gutxiagoz.
- titularrak edo onuradunak izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu bateko aldi baterako plaza bat bete duenean, funts publikoekin finantzatuta.

c. Diru-sarrerak bermatzeko errenta behin betiko eten badidate, etorkizunean berriz ere eska al dezaket?

Arrazoi batzuen ondorioz, ezingo dut laguntza berriro eskatu:

urtebetez: Enplegu-eskaintzari uko egitea, gizarteratzeko programarik ez sinatzea...

2 urtez: Zehaztasun ezak, faltsukeriak....

Beste kasu batzuetan, berriz eskatu ahal izango dut, **edozein unetan**.

d. Hitzordua hartu eta non aurkeztu behar ditut dokumentu guztiak?

Eskabidea bere helbidearen posta-kodearen arabera dagokion bulegoan, telematikoki egoitza elektronikoaren bidez, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan, hala nola:

- Zuzentzen zaizkion administrazio edo organismoaren erregistro elektronikoan.
- Posta-bulegoetan, erregelamenduz ezartzen den moduan.
- Espainiak atzerrian dituen ordezkaritza diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.
- Erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan
- Indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

4. EMANTZIPAZIOA. ZER EGIN BEHAR DUT ETXETIK JOATEKO?

EGK-k hamarkadak daramatza gazteen emantzipazioa bere aldarrikapenen lehen lerroan izaten, ekarpenak egiten eta hobekuntzak proposatzen. Helburuak gazteen kalitatezko enpleguak defendatzea eta etxebizitza duinetarako sarbidea bermatuta izatera iristea dira, ezinbestekoak baitira bizi-proiektu autonomo baten oinarriak jartzeko.

Aurtengoan, emantzipazioaren gaia ertz ezberdinetatik jorratzeko xedea izan dugu. Horietako bat, bada, emantzipazio erduei loturikoa da. Izan ere, gurean gailentzen den erdua familia nuklearrari erantzuten dion etxebizitza-eredu zurruna da, eta emantzipazio erduan eragina duten faktore kulturalak ere egon badaude. Emantzipaziorako laguntzen ulergaitasuna identifikatu ohi da gazteen artean eta hauengana iristeko zailtasunak daude. Horren analisi bat ezinbestekoa deritzo gazteengana errekursoak nola hurbildu jakiteko. Hau guztia ikusirik, ezinbestekoa da dauden laguntzen berri ematea:

Emantzipatzeko dauden laguntzak eta nola eskatu >>>>



GAZTELAGUN



- 18 eta 35 urte arteko adina izan behar duzu.
- 6 hilabetez Euskal Autonomia Erkidegoan etengabe bizitzen egotea ezinbestekoa da.
- Ezin duzu etxebizitzaren jabea izan, banandu, dibortziatu edo bestelako arrazoiengatik horretaz ezin duzula gozatu egiaztatzea ahal den kasuetan izan ezik.
- Errentamendu-kontratuaren titularra izan behar duzu, banan-banan edo beste kide batekin (etxebizitza partekatuta).
- Etxebizitzak ohiko bizitokia eta iraunkorra izan behar du laguntza eskatzen duzuen pertsonentzat.
- Ezin duzu familia-loturarik izan (hirugarren mailara arte) etxebizitza alokatzen duen pertsonarekin edo bere familia-unitatearekin.

Ekonomia-baldintzak:

- Banaka eskatuz gero: Urtean diru-sarrera gordinak 24.500 (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) €-tik beherakoak eta 3.000 € gorakoak.
- Familia-unitate modura eskatuz gero: Urtean diru-sarrera gordinak 30.000 (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) €-tik beherakoak eta 3.000 € gorakoak.
- Familia ugariak izanez gero: Urtean diru-sarrera gordinak 32.000 (zerga-oinarri orokorraren eta aurrezkiaren batura) € beherakoak eta 3.000 € gorakoak.

Errenta gehienezko prezioak:

- 800 € Bilbon, Donostian eta Gasteizen.
- 750 € hiru hiriburuen metropolian eta 10.000 biztanletik gorako herrietan.
- 675 € gainerako herrietan.



EMANTZIPA

- Adina: 25-29 urte bitartean (biak barne).
- Eskaera egin baino urtebete lehenagotik gutxienez EAEn erroldatuta egotea / EDO eskaeraren egunean EAEn erroldatuta egonik azken 10 urteetan 3 urtez segidan EAEn erroldatuta egon izana.
- EAEn kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratuaren titularra izan behar da, banaka edo errentari kide gisa (etxebizitza partekatuta) EDO salerosketa-kontratu baten titular, bakarrik edo jabe-kide gisa. Etxebizitzak ohiko bizileku iraunkorra izan behar du.
- Ezingo da ohiko bizileku hori ez den beste etxebizitza baten titularra edo titularkidea izan.
- Ezin da familia-loturarik izan (bigarren mailara arte) etxebizitza alokatzen edo saltzen duen pertsonarekin.
- Etxebizitzak ezin du babes-publikokoa izan.
- Hilean 300€ko dirulaguntza.
- 2 urtez jaso daiteke gehienez.

Ekonomia baldintzak / Errenta:

- 3.000€ - 28.000€ bitarteko diru-sarrerak izatea.
- Zerga aitortzea ezkontide edo izatezko bikote-kidearekin batera egitekotan, 3.000€-34.000€.

Ez dira kontutan hartuko diru sarrera hauek: Emantzipa programako laguntza ekonomikoa, Gaztelagun programako laguntza ekonomikoa, EPO eta EPE, alokairua ordaintzeko gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzea eta ondare-irabazi eta -galera negatiboen saldo garbiak.

EGK-k laguntza hauen diseinuari ekarpenak egitean hainbat aldaketa lortu zituen, besteak beste, beste hainbat laguntzarekin bateragarria izatea, hala nola, **Diru-sarrerak bermatzeko errenta, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera, Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa.**



5. ENPLEGU ETA EKINTZAILETZA BALIABIDEAK GASTEIZEN

Gasteizko Udalaren Sustapen Ekonomikoaren zerbitzuak laguntza ugari eskaintzen ditu lan-merkatuan sartzeko edo negozio bat abian jartzeko. Atal honetan, gazteei zuzendutako baliabide nagusiak azalduko ditugu:

Enplegu Bilaketa eta Prestakuntza Programa

Gasteizko Udalak lan bila ari direnentzat prestakuntza eta laguntza eskaintzen ditu, Lanbide-rekin elkarlanean. Programak gazteen beharrei egokituta daude, lan-merkatuari buruzko informazio praktikoa eskainiz:

Enplegu-lantegiak:

Enplegu-lantegiek enplegu-bilaketarako oinarrizko trebetasunak lantzeko aukera eskaintzen dute. Hauen bidez, parte-hartzaileek tresna baliagarriak ikasiko dituzte, hala nola:

- CV eta aurkezpen-gutunak sortzea eta optimizatzea
- Elkarriketa-teknikak lantzea.
- Enplegu-bilaketa eta sare sozialen erabilera profesionala.

Lantegiak hilero antolatzen dira, eta izena ematea doakoa da. Tailerrak 30 ordukoak izaten dira, 3 orduko saioetan banatuta.

Coaching eta Prestakuntza Aurreratua:

Profesionalen laguntzarekin egiten den coaching-programak gazteei beren marka pertsonala eta gaitasun espezifikoak garatzen laguntzen die, enplegu-aukera gehiago izateko.

- Programaren bidez, parte-hartzaileek komunikazio-trebetasunak lantzen dituzte, autoezagutza sustatzen dute, eta networking-a bultzatzen da.
- Coaching saioak udalaren espazioetan egiten dira, CETIC edo Ignacio Ellacuría ikastegian.

Udal enpleguari buruzko informazio gehiago Gasteizko Udaleko udal enpleguaren atalean: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contenidoAction.do?idioma=eu&uid=_34a71f71_11a14049d19...7ff3

Ekintzailetzarako Laguntzak eta Baliabideak

Negozio ideia bat duten gazteentzat, Gasteizko Udalak laguntza eta baliabide ugari eskaintzen ditu proiektuak garatzeko eta autoenpleguarekin aurrera egiteko:

Negozio Berriak Abian Jartzeko Dirulaguntzak:

Hasierako gastuetarako dirulaguntzak daude eskuragarri, hala nola, negozioaren sorrera-gastuak, prototipoak sortzea eta kudeaketa-sistemak ezartzea. Horiek guztiak ekintzaile berrientzat eta enpresa txikientzat dira bereziki erabilgarriak.


Coworking eta Aholkularitza Zerbitzuak:

Proiektu profesionalak garatzeko espazio egokiak eskaintzen ditu Udalak, coworking guneak barne, non aholkularitza pertsonalizatua jaso daitekeen negozio-idea bat finantzatzeko eta gauzatzeko.

Ekintzailetza Sozial eta Zirkularrerako Programak:

Gizarte eta ingurumen-inpaktua duten proiektuetan interesa duten gazteentzako programa espezializatuak daude, hauei buruzko prestakuntza eta kontaktu-sareak garatzeko.

Enpresaren eta ekintzailetzaren inguruko informazio gehiago Gasteizko Udaleko enpresak eta ekintzailetza atalean: <https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/we001Action.do?accionWe001=ficha&idioma=eu&accion=cuadroMando&claveArea=76&claveTema=266>.



Informazio Gehiago Lortu eta Eguneratu Zaitez

Enplegu eta ekintzailetza arloko azken laguntzak eta aukerak ezagutu nahi badituzu, izena eman dezakezu Sustapen Ekonomikoaren buletinean edo zuzenean jar zaitezke harremanetan **promocioneconomica@vitoria-gasteiz.org** helbidean edo 945 161224 telefono zenbakian.

6. OHIKO GALDERAK

Gida honetan, gazteek bizitza autonomorako eta lan-merkaturako sartzeko bidea hastean izan ohi dituzten galdera ohikoenetako batzuei erantzun diegu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) nola eskatu, errenta-aitorpena nola egin, emantzipatzeko edo etxebizitza bat lortzeko modua, etab. Hala ere, oraindik badira prozesu hori errazteko erantzun beharreko galdera praktiko zein beharrezkoak. Atal honetan, zalantza horiei helduko diegu, eta garapen pertsonal eta profesionalean aurrera egiten lagunduko duten erantzun argi eta erabilgarriak eskainiko dira.



Nora jo behar dut enplegu bilaketa aktiboan hasten naizen momentuan??

Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu bat aurkitzeko, lehenik eta behin, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena eman behar duzu. Hori egiteko, webgunean (www.lanbide.euskadi.eus) edo Lanbideko bulegoetan izan dezakezu. Izena emateak lan-eskaintza eta orientazio profesionaleko zerbitzuetara sarbidea ematen dizu, baita prestakuntza eta laguntza ekonomikoak ere.

Nora jo behar dut lehendabizi etxebizitza bat alokatu edo erosi nahi badut? ?

Euskal Autonomia Erkidegoan pisu bat alokatu edo erosi nahi baduzu, lehenik Alokabide edo Etxebidera apuntatu behar duzu.

- Alokabide: Etxebizitza alokairuen sustapen publikoaren programa da, eta etxebizitzaren alokairuaren baldintza onuragarriak eskaintzen ditu. Alokabiden izena emateko, beharrezkoa da etxebizitza behar duten pertsonak eskaera egin eta dagokien baldintzak betetzea.
- Etxebide: Etxebizitza publikoen erregistroan apuntatzea da, eta horren bidez, etxebizitza publikoa alokatu edo erosi daiteke. Hori egiteko, etxebizitza eskatzaileak araudiaren arabera baloratzen dira eta eskuragarri dagoen etxebizitzaren arabera esleitzen dira.

Bi kasuetan, lehenik eta behin izena eman behar da, eta gero, baldintza egokiak betetzen dituzten eskaerak prozesatzen dira.

Zein dokumentu eta baldintza behar ditut Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ahal izateko?"

Euskadin lan egin ahal izateko, lehenik eta behin, **NAN edo bizileku baimena eta lan baimena** izan behar duzu, eta SOI (Segurtasun Sozialaren Identifikazio Zenbakia) eskatu behar duzu, lan-kontratua sinatzea ahalbidetzeko. Bestalde, lanaren sektorearen arabera, espezializazio edo titulazio egokiak izan

daitezke beharrezkoak. Langabezia egoeran bazaude, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena ematea gomendatzen da, lan bila hasteko eta orientazioa jasotzeko.

Langabezia prestazioa jasotzeko zer egin behar dut? Eta lanean hasten banaiz, prestazioari uko egin behar diot eta abisatu behar dut?

Langabezia prestazioa jasotzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura joan behar duzu eta izena eman behar duzu langabezian. Horretarako, beharrezko dokumentazioa (identifikazio agiriak, lana galdu izanaren ziurtagiria, aurreko lanaren kontratuak, etab.) aurkeztu behar izango duzu. Lanean hasten bazara, prestazioari uko egin behar diozu, eta Lanbide-ri jakinarazi behar diozu horren berri. Lanik aurkitu duzula jakinarazteko, 3 eguneko epea izango duzu, bestela prestazioa etengo da. Langabezian egon arte jasotako prestazioa ez da kobratuko lan egiten baduzu.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta behin betiko eten badidate, etorkizunean berriz ere eska al dezaket?

Arrazoi batzuen ondorioz, ezingo dut laguntza berriro eskatu:

urtebetez: enplegu-eskaintzari uko egitea, gizarteratzeko programarik ez sinatzea...

2 urtez: zehaztasun ezak, faltsukeriak...

Beste kasu batzuetan, berriz eskatu ahal izango dut, **edozein unetan**.

BIBLIOGRAFIA:



Goikoetxea, Jule; Miralles, Nora; Garai, Estitxu eta Etxeberria, Lore (2019). Iturria: EAEko demokrazia Patriarkala: lan ordaindua, lan ez ordaindua, ongizate erregimena eta eremu sozio-politiko. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/beca.2017.2.Demokrazia_patriarkala.pdf

Gazteen Euskal Behatokia (2023) Gazteen adierazleak 2023. Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin. Iturria: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_investigaciones_publicacio/eu_10717/adjuntos/Obs-Vasco-Juventud-Informe-Vivienda-EU-.pdf



Euskadiko
Gazteriaren
Kontseilua

Consejo de
la Juventud
de Euskadi



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala